

Estropada akademikoko 4 edizioan MONDRAGON UNIBERTSITATEko ikasleez osaturik botea izan dugu

2016/10/17

Orain dela lau urte jarri zen martxan ideia hau, betidanik unibertsitatearekin lotura izan duen kirol modalitatea bultzatzeko eta Donostian egoitza duten 4 unibertsitateak elkartzeko helburuarekin.

Ikasturte honetan, programaren ekintza denak larunbatean izan ziren. Goizean Donostiako Aquariumean arraunaren eta olinpismoaren inguruan sakontzeko aukera izan genuen. Arratsaldean berriz estropadetako bi probak izan ziren, Urumearen jeitsiera eta sprintak.

Txapelketa Deustuko Unibertsitateko boteak irabazi zuen mutilen kasuan eta Tecnumeko botea nesken kasuan.

Aipatu behar da gure unibertsitatea izan dela botea ikasleez betetzen bakarrenetarikoa. Besteek, arautegia baimentzen duen bezala, ikasleak ez diren jende askorekin osatu dituzte beraien boteak, klub berdineko arraunlariak izanda, garaipena lortzeko aukera gehiago izan dituztelarik.

Eskerrik asko gure arraunlariei egindako ahaleginengatik.

Argazki gehiago gure [facebookeko orrialdean](#)

